

## HEZKUNTZA SAILA

EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 29koa, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendariarena, 2020-21 ikasturtean zehar atzerriko hizkuntza indartzeko laguntzak emateko dena, heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei.

Aurrekariak:

2020ko abenduaren 1eko aginduak (abenduaren 18ko, 253 zbk.ko EHAA) 2020-21 ikasturtean zehar atzerriko hizkuntza indartzeko laguntzak emateko prozedura eta irizpideak arautu eta ezartzen ditu, heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei zuzenduta.

Eskabide-espeditenteak aztertuta, 10 eskabide jaso dira. Bertan, 12 talde proposatzen dira 923 eskola-ordu emateko.

2.1. artikulua ezartzen du aurrekontu-hornidura 80.000 eurokoa dela.

2.2. artikulua ezartzen du, gehienez, 50 euroko laguntza emango dela baimendutako talde bakoitzean emandako ordu bakoitzeko. Halaber, 16.2 artikulua araber, guztira eman beharreko zenbatekoak gainditu egiten badu 2.1 artikuluan ezarritako aurrekontu-hornidura, erakunde onuradun bakoitzari emango zaion zenbatekoa proportzioan egokituko da baimendutako taldeen arabera, harik eta laguntza guztiak aurrekontu-hornidurara moldatu arte.

Baimendutako talde guztien eskola-ordu-kopurua bider 50 euro, eragiketaren emaitza deialdiaren aurrekontu-hornidura baino gutxiagoa izanez, dirulaguntzaren gehieneko kopurua esleitzea egokia da, hau da, 50 euro ordu bakoitzeko.

Hori guztia dela eta,

**EBAZTEN DUT:**

1. artikulua.- I. eranskinean aipatzen diren ikastetxeei dirulaguntzak ematea. Ondoan dirulaguntzen zenbatekoak ere adierazita daude.

2. artikulua - Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, herritar oro jakitun egon dadin.

## AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal zaio Lanbide Heziketako Sailburuordeari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urtarrilaren 29an

Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria  
**RIKARDO LAMADRID INTXAURRAGA**



Nahi izanez gero, J0D0Z-T2JFQ-71HS bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T2JFQ-71HS en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>

I ERANSKINA  
EMANDAKO LAGUNTZAK

<b>Ikastetxea</b>	<b>NAN/IFZ/AIZ</b>	<b>Ikastetxe-kodea</b>	<b>Talde kopurua</b>	<b>Orduak</b>	<b>Dirulaguntza eurotan</b>
CPIFP Egibide LHIPI	G01033547	10248	2	120	6.000,00
CPES Elizaran Ikastetxea BHIP	G20997714	12544	1	76	3.800,00
CPIFP Centro De Estudios A.E.G. LHIPI	B20409892	12479	1	75	3.750,00
CPIFP Urola Garaiko Lanbide Eskola LHIPI	G20567327	12593	2	200	10.000,00
CPIFP La Salle-Berrozpe LHIPI	G20045118	12746	1	80	4.000,00
CPIFP San Viator LHIPI	G95426797	14824	1	80	4.000,00
CPIFP Jesuitak Politeknikoa LHIPI	R4800030A	14634	1	90	4.500,00
CPIFP Somorrostro LHIPI	R4800613D	14779	1	62	3.100,00
CPES Almi BHIP	A28814531	14615	1	80	4.000,00
CPES Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia BHIP	R4800615I	14723	1	60	3.000,00
<b>EAE guztira</b>			<b>12</b>	<b>923</b>	<b>46.150,00</b>